TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

1.- Zerbitzua eskatzen duena da prezio publiko hau ordaintzera beharturik dagoena.

2.- Zerbitzua ikasturte osoan (irailetik uztailera) erabiltzen duten onuradunek hamaika ordainketa oso egin beharko dituzte, eta ordaindu beharreko kopurua diru-sarreren taula aplikatzearen ondorioz kalkulatuko da. Ordainketak hilerokoak izango dira, zerbitzua emateko urtero onartzen den eskola egutegiaren arabera.

Salbuespena: jangelari utzi beharra dakarren ezinbesteko arrazoia, eta behar bezala justifikatua denean, Udalak erabakiko du. Oporretan egotea ez da ezinbesteko arrazoia. Hilabetea hasi baino lehen jakinarazi eta justifikatu beharko da.

3.- Edozein aldaketa (jangela zerbitzua eskatu, ordutegia aldatu, baja eman) idatziz egin beharko da, udaletxeak horretarako dituen eskabide orriak beteaz eta behar bezala justifikatuaz. Aldaketa hauek eskatzeko azken eguna hilabete bakoitzaren 25a izango da.

4.- Egokitze kasuan, egokitzapena 2 astekoa denez, epe hau ez da ordainaraziko. Epe hau bukatu ondoren denei zerbitzua ordaintzeko eskatuko zaie.

5.- Jangelako umeen eta helduen kuotak, lan arazoetan eta haurra gaixotzen den kasuetan, murriztu ahal izateko, medikuak, horretarako dagoen mediku orria bete beharra du eta orri hori entregatua izan beharko da. Medikuaren eskaera orri hauetariko bakoitzak aste baterako soilik balio du eta beraz, haurra gaixo dagoen aste bakoitzeko orri bat entregatu beharko da. Murrizpena %25ekoa izango da haurra gutxienez 5 egun jangela erabili gabe egon bada. %50ekoa, bi astez joan ez bada eta %75ekoa hiru astez joan ez bada. Medikuaren ziurtagiri hauek, hurrengo hilabetea bukatu aurretik hilabete bakoitzaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira. Behin data hau pasatzean, murrizpena ez da aplikatuko.

6.- Tarifa ordaintzeko, plaza eskatzerakoan ezinbestez eman behar da kontu korrontearen zenbakia, eta zenbaki horren bitartez udaleko zerbitzu ekonomikoek dagokion tarifa kobratuko dute.

7.- Jangela erabiltzeko zerbitzuaren eskaera, ordutegiaren aldaketa eta jangelan baja ematea, Udaletxean egin beharreko tramiteak dira, Hezkuntza Departamentuan edo Herritarren Harrera Zerbitzuan (hhz). Berdin, medikuaren agiriak entregatzea ere.

8.- Tarifak %50ean murriztuko dira jangela bi senidek batera erabiltzen badute. Hiruk batera erabiltzen badute, berriz, hirugarren honengatik ez da inolako tarifarik ordaindu beharko.

9.-0-1 urteko gelan, haurrak 7 hilabete betetzen dituen hilabetean hasiko dira aplikatzen tarifak.

INFORMAZIO GEHIAGO

Hezkuntza saila: Udaletxeko lehenengo solairuan. Telefonoa: **943337041;** emaila: hezkuntza@hernani.eus